

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2021eko apirilaren 3tik 9rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/04/03

- **BARNE MINISTERIOA. - Mugak.** - INT/316/2021 Agindua, apirilaren 1ekoa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz Portugalekiko lurreko barne-mugan berrezarritako kontrolak luzatzen dituen. **5247 xedapena - 2 or.**

2021/04/06

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. - Antolamendua.** - 200/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Batzorde Nazionalaren osaera arautzen duen abuztuaren 2ko 1879/1996 Errege Dekretua aldatzen duena, Estatuko Administrazio Orokorreko ministerio-sailen egitura berrira egokitzeko. **5327 xedapena - 2 or.**

2021/04/07

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA. - Antolamendua.** - 242/2021 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, Gobernuaren Ordezko Batzordeak ezartzen dituen otsailaren 25eko 399/2020 Errege Dekretua aldatzen duena. **5393 xedapena - 3 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. - Zerga-prozedurak.** - 243/2021 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, tributuak kudeatzeko eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduren arau komunak garatzeko jarduketan eta prozeduren Erregelamendu Orokorra aldatzen duena, zeina uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen, 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 25eko 2018/822 (EB) Zuzentarauaren transposizioan, fiskalitatearen arloko informazioa automatikoki eta nahitaez trukatzeari dagokionez, informazioaren komunikazioa behar duten mugaz gaindiko mekanismoen arloan. **5394 xedapena - 14 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.** - HAC/320/2021 Agindua, apirilaren 6koa, ezohiko zatikapena ezartzen duena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenaren ondoriozko zerga-zorra

ordaintzeko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei lotutako prestazioen onuradunentzat, 2020an zehar. 5395 xedapena - 3 or.

2021/04/08

- **BARNE MINISTERIOA. - Ostalaritza. Erregistro-liburuak.** - INT/321/2021 Agindua, martxoaren 31koa, ostalaritza-establezimenduetako bidaiarien erregistro-liburuei eta sarrera-parteei eta antzeko beste batzuei buruzko uztailaren 3ko INT/1922/2003 Agindua aldatzen duena, dokumentuak erregistratzeko betebeharre dagokienez. 5483 xedapena - 4 or.
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. - Txerri-, behi- eta ardi-aziendak.** - 145/2021 Errege Dekretua, martxoaren 9koa, zeinaren bidez aldatzen baitira uztailaren 6ko 814/2018 Errege Dekretua, txerri-azienden kanalen sailkapenari buruzko aplikazio-xedapenak ezartzen dituen, eta uztailaren 6ko 815/2018 Errege Dekretua, behi- eta ardi-kanalen sailkapenari eta kategoria jakin batzuen eta animalia bizien merkatu-prezioen erregistroari eta komunikazioari buruzko aplikazio-xedapenak ezartzen dituen. 5485 xedapena - 9 or.
- **Salbuespen-neurriak.** - PCM/324/2021 Agindua, apirilaren 7koa, Ministroen Kontseiluaren 2021eko apirilaren 6ko Erabakia argitaratzen duena, zeinak luzatu egiten baitu Ministroen Kontseiluaren 2021eko otsailaren 2ko Erabakia, COVID-19aren hedapena eta kutsatzea mugatzeko ezohiko neurriak ezartzen dituen, Brasilgo Errepublika Federalaren eta Hegoafrikako Errepublikaren eta Espainiako aireportuen arteko hegaldiak mugatuz. 5487 xedapena - 3 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/04/07

- **FORU AGINDUAK (ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA).** - Foru Agindua 168/2021 martxoaren 25. COVID-19ak 2021eko ekitaldian Arabako merkataritza sektorean sortutako jarduera gastuei aurre egiteko eta COVID-19ak Arabako merkataritzan eta ostalaritzan sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen araudia. 1151 xedapena - 2 or.

2021/04/09

- **Arabako Foru Aldundia. - FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 10/2021 Foru Dekretua, martxoaren 9koa. Onestea dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko egoitza arretako zentroen eta zentro okupazionalen oinarritzko estatutua. **1192 xedapena - 34 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/04/06

- **Gizarte Ekintza Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 23/2021 FORU DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez onesten baitira desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko eta haiek gizarteratzeko 2021. urterako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa. **L-245 xedapena - 16 págs.**
- **Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 21/2021 FORU DEKRETUA, martxoaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 80/2020 Foru Dekretua, abuztuaren 25ekoa, zeinaren bidez COVID-19 pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, Bizkaiko gazteen enplegararritasuna sustatzeko Kontrata 30 programaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten direna (Bizkaia Aurrera). **L-249 xedapena - 3 or.**
- **Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 22/2021 FORU DEKRETUA, martxoaren 30koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 57/2020 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, zeinaren bidez COVID-19aren pandemiak sortutako krisiaren ondorioz onesten baitira kontrataziorako eta enplegua mantentzeko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia egiten duena. **L-250 xedapena - 3 or.**

2021/04/08

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 631/2021 FORU AGINDUA, apirilaren 7koa. Honen bidez, garatu egiten dira pertsona fisikoen errentaren gainerako zergaren 2020ko zergaldiko aitorpenak aurkezteko laguntza-kanalak. **L-291 xedapena - 1 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/04/06

- **ERREGELAMENDUAK.** - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/557 (EB) Erregelamendua, 2021eko martxoaren 31koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2017/2402 (EB) Erregelamendua, titulizaziorako esparru orokorra ezartzen duena eta titulizazio sinple, garden eta normalizaturako esparru espezifikoak sortzen duena, COVID-19ak eragindako krisitik suspertzen laguntzeko. **L116/1 xedapena - 24 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/558 (EB) Erregelamendua, 2021eko martxoaren 31koa, zeinaren bidez aldatzen baita 575/2013 (EB) Erregelamendua, COVID-19ak eragindako krisiari erantzuteko susperraldi ekonomikoa sustatzeko titulizazio-esparruaren doikuntzei dagokienez. **L116/25 xedapena - 8 or.**

2021/04/09

- Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendu-proposamenari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baita Kontseiluaren 95/93 (EEE) Erregelamendua, COVID-19aren pandemiaren ondorioz Europako Erkidegoko aireportuetan ordu-tarteak erabiltzeko arauak aldi baterako arintzeari dagokionez [COM (2020) 818 azkena — 2020/0358 (COD)]. **C 123 xedapena - 5 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO